

ALKATEARI

Talde Popularreko zinegotzi Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta Atotxako geltokiko behin-behineko zubibideko ekipo elektrogenoaren gaineko MOZIO ARRUNT hau aurkeztu behar dio Udalbatzari, osoko bileran eztabaidatzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Abiadura handiko trenaren obrak direla eta, oinezkoentzako pasabide bat jarri du ETSk Frantziako pasealekuko 21. zenbakiaren eta Blas de Otero plazaren artean, eta 2024ko urtarrilera arte jarrita izango dela uste du hark 51,2 metro luze eta 3 metro zabal dituen pasabidea hori. Bi igogailu ere baditu pasabideak, alde banatan bat. Hiriaren erdigune aldera denak 7,3 metroko desnibela gainditzen du, eta Egia aldera denak 5,6 metrokoa. Argiek eta bidezaintza sistemak osatzen dute hizpide dugun azpiegitura.

Pasabidearen azpian, ordea –haren ondotik metro bat-edo besterik ez dela–, ekipo elektrogeno bat dago jarrita. Usain txarra eta zarata handia ateratzen du hark etengabe, eta endredo handia eragiten die bizilagunei.

Hori dela eta, hauxe da gure

MOZIO ARRUNTA

1. Donostiako Udalbatzak Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari eskatzen dio, ETSren bidez, tokiz aldatzeko ekipo elektrogeno hori.

Donostian, 2021eko azaroaren 30ean

Borja Corominas Fisas

Udaleko Talde Popularraren bozeramailea